



Omenaldi sentitua frankismoaren biktimak gogoan

Durango 1936 elkarteak antolatutako 'Agurrik gabeak' ekitaldiak 300 lagun inguru batu zituen

Durango 1936 kultur elkartearen eskutik "askatasunaren alde borrokatzearen hildako, fusilatu eta desagertuei" egindako gorazarreak 300 lagun inguru batu zituen Plateruena kafe antzokian. Omenaldi hunkigarria jaso eben, eta "70 urteotako isiltasuna apurtu eta etxean gordetako sentimenduak lehartarazo" zituen Olmako tximiniaren aurrean antolatutako ekitaldi xumeak.

Durango 1936 elkarteak jasotako hildako eta desagertuen izenak irakurri zituen

abizenekin batera, lora-eskaintza egin eben, Durangoko Ordena Publikoko kide zen Juan Eskubiren semearen eta Durango 1936 Elkarteko lehendakari be baden Juan Mari Eskubiren eskutik. 1938ko urriaren 24an Larrinagako kartzelatik atera eta fusilatu egin eben Eskubi. Egun hori baliatuta

Durango 1936k batutako hildako eta desagertuen izenak irakurri zituen

Olmako tximiniaren aurrean egindako ekitaldiak "etxean gordetako sentimenduak lehartarazo" zituen

egin eutseen gorazarre "borrokari antifaxistei", Eskubik lan egin eban Olma enpresa izan zeneko azken arrastoa dogun tximinian.

Aurretik, txalaparta doinu artean irakurri zituen hildakoen izen-abizenak eta Aureskua be eskaini eutseen. Juan Mari Areitoren bertsoen ondotik, *Agurrik gabe* abestia (Unai Iturriagaren hitzak Ander Ertzillak musikatuta) kantatu eben. Bide Ertzeanen kantaldia be izan zen. ■ A.B.



Durango 1936 elkarteak eratutako ekitaldiak ehunka lagun batu zituen. J. Fernandez

GARAI

Hiri-plangintza barria landu gura dau EAJk

Indarrean direnak "zaharkituta" dagozela-eta, Arau Subsidiario barriak lantzeko prozesua hasi gura dau EAJk, eta, horretarako, 2009ko aurrekontuan hiri-plangintza idazteko taldea kontratatzeko dirua gordetzea proposatu dau, ekarpenak egin gura ditueen guztiei zabalduetako batzordea sortzea ez eze.

Arau Subsidiarioek ez deuseela herriaren egungo beharrei erantzuten dinoe

Zortzi urteko iraunaldia aurreikusita, orain 12 urte onartutako arauak ditueela gogoratu dau EAJk: "Ez dira herriaren gaur egungo preminei egokitzuten, eta garrantzitsuagoa dena, garaitarrok etorkizunerako gura doguzenak ez ditue jasozten".

Udalak "erreminta urbanistikoko barria" izan daian, Gobernu Taldeak pausoak emoten hasia sustatuko dau EAJk: "Herriaren idiosinkrasia errespetatuko dauen etorkizuneko erreminta, ahalik eta kontsentsuatuena eta integrazino-ikus-puntua daukana". Landatarra izaten jarraitzea gura daben inguruan "garapen jasangarria" ahalbidetu gura dabe, "preminazko" espazio etazertbitzuekin. "Auzoen sendotzea" bultzatu gura dabe, eta lur-erabilera tertziarioa definitzea: "Zerbitzu-enpresa edo gure ezaugarriekin bat datozen industria txikiak jartzea bultzatzeko". ■ A.B.

IURRETA

Zergak eta tasak, oro har, %4 igongo ditue 2009an

Salbuespen moduan, Udalak eskaintako kultur tailerretan %10eko igoera onartu dabe

Zerga eta tasek, orokorrean, %4ko igoera izango dabe 2009an. Kultur tailerrek dira salbuespen; horretan %10eko igoera onartu dabe. Azkenengo horri PSE-EEK "gehiegizkoa" deritzo: "Igoera moderatuagoa egin behar geunke, eta egoera hobeei itxaron". Ondasun Higiezinaren Gaineko zergan (OHZ) alokairuan jarritako 2. etxeagaitik %75eko hobariari be ez deritzo egoki.

Egoeraz jabetu arren, "aurrekontuari segurtasun ekonomikoa" emon gura deuto EAJk, eta, OHZko hobariagaz "gazteei alokairuan etxebizitza eskaini". EB-Berdeek be egoki deritzo, gaintasa jartzearen alde egon arren: "Konplikatu izan leiteke hori, eta gura doguna da etxe hutsak kaleratzea; babestutako etxerik ezin dogu eskaini oraingo". PSE-EEK, baina, "gehien daukanaren alde" dihardueela uste dau; eta etxe huts "gitxi" dagoela. Kontsumo Prezioaren Indi-

zearen (KPI) azpitiko igoera "arrazoizko" eta "moderatuagaz" ados dago PP, igaz %2,5 igon zirela gogoratu arren. Ildo horretatik, Udalak diru gitxiago jaso dauela eta zerbitzuak mantendu direla dinoe EB-Berdeek: "Ikastaroen gastua orekatzea be jo behar dogu. Beraz, igoerak egokiak dira".

Zirkulazino eta garajeetako sarreraren gaineko tasak zegozean izteko eta zabor eta estolderian igoera %3,5ekoa izateko sozialisten proposamenak ez ditue onartu; zeharkakoagoak diren tasa eta zergak igon beharko litzakezela dinoe. PSE-EE eta Borja Uli-barri zinegotzia abstenitu egin dira. Besteek alde egin dabe. ■ A.B.

Ondasun Higiezinaren Zergan %75eko hobaria lotu dabe alokairuan jarritako 2. etxean

DURANGALDEA

Domu Santu egunez lora eta jentetz beteko dira hilerriak

Deneriko lorez jantziko dira, beste behin be, kanposantuak azaroaren 1ean

Bakotxaren sinismen eta gurarien arabera hartu ohi doguz gogoan hildakoak. Halan be, gorpua lurperatu baino errausketa gurago dabenak geroago eta gehiago diren arren, urtez urte mantendu den ohitura da Domu Santu egunez hilerriara joatea. Urtean zehar izan ohi daben kolore gris eta iluna baztertuz, azaroaren lehenengoan kolore biziz hornituta hartzen ditue bisitariak kanposantuek.

Durungaldean be itxuraldaketak sakona izan ohi dabe. Askok izango dira hildakoak gogoratuz inguruko hilerriak bisitatuko ditueenak, baden arren jentetzagaz bat egin gura ez eta hildakoak gogoratzeke Domu Santu aurreko egunak gurago dituenik. ■ A.B.



Hilobiak garbitu eta lorak jartzeko izan ohi dira egunok. I.G.